

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Metro Bilbao, Bizkaibus, Kbus..., Eusko Jaurlaritza, haiekin zuzenean lan egingo dugulako, eta pultserak ekoizten dituen enpresa bat, gure produktua aurrera eraman ahal izateko. Publizitate enpresa bat ere gure produktua helarazteko bezeroei, diseinatutako kartelen eta iragarkien bidez.

Gero, pultseren eta publizitate iragarkien diseinua egiten duen beste enpresa bat.

Posta enpresa bat (Correos edo Fedex) internet bidez erositako pultserak bezeroen etxeetara eramateko.

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako? Proiektua ondo ateratzeko bazkide eta hornitzaile guzti horien laguntza behar dugulako, ideiarekin bakarrik ez zelako posible izango. Interdependentzia sortzen dela gure artean ikus dezakegu.